

BERGARAKO UDALA

AGORROSINERAKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILE ATEZAINAK ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

PRESAZKO PROZEDURA

1.- OINARRIEN XEDEA

Presazkoa den deialdi honen xedea da, **LANBIDEn** izena emanda dauden EDO interesa izan dezaketenen artean, **AGORROSINERAKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILE ATEZAINAK ALDI BATERAKO LANGILEAK KONTRATATZEKO LAN-POLTSA OSATZEA**, lehiaketa- oposizioaren bidez.

Deialdi honetako lanpostuari honako ordainsariak dagozkio:

- Destino osagarria 16 mailari dagokiona eta berariazko osagarria 16.642,80 euro/urteko.

Derrigorrezko C1C1 (3) hizkuntza-eskakizuna du eta derrigorrezkotasun-data beteta du.

Lan-poltsaren iraunaldia urtebete batekoa izango da, osatzen denetik.

Lana lanaldi zatituan edo goizeko edo arratsaldeko txandetan egiten da, normalean jaiegunak eta asteburuak barne, betiere lanpostuaren izaera eta premia espezifikoak aintzat harturik. Halaber, aurrez zehaztutako ordutegian edo noizbehinka ordutegi aldakorrean egiten da lana, eta alde zehaztutako egutegian edo noizbehinka aldagarria den egutegian oinarrituta, disonibilitatearekin atezaintzako premiei begira (urteko jarduna kontuan izanda soberan dituzten orduekin).

Aurreikusten den lan-poltsaren iraupena luzatu ahal izango da betiere lanpostuak betetzeko deialdietatik lan-poltsa espezifikoak osatzen ez badira aurretik.

Horrela izango balitz, hasierako urtebetea pasatu ondoren azken hauek lehentasuna izango dute dagokien kontratazio-premietarako.

Halaber, prozesua gairiditu eta udalak izan ahal dituen aldi baterako kontratazio premiei erantzuteko baldintzak betezen badira, udalean egon daitezkeen aldi baterako kontratazio premiei erantzuteko deituak izan ahal dira (C1,C2 eta E taldeko lanpostuetarako izan daitezke: administrari, atezain, administrari laguntzaile...edo titulazio talde baxuagokoak), beti ere lanpostuari dagozkion lanpoltsa propiorik ez balego. Lanpostu berri bakoitzerako egiten den kontratu bakoitzean dagokion frogaldia izango du.

2.- LANPOSTUAREN EGINKIZUNAK

Deialdi honen xede den lanpostuaren eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

Agorrosingo bulegoko laguntzaile-atezainaren lanpostuaren eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

- Agorrosingo kirol instalazioetan atezain lanak; beste batzuen artean:
 - Ateak itxi eta zabaldu
 - Alarma jarri eta kendu
 - Argiak piztu eta itzali

- Giltzen kontrola eraman
 - Erabiltzaileen portaera zaindu eta behar diren neurriak hartu
 - Iragarki-taula kontrolatu eta mantendu
 - Abonuen eta erabiltzaileen kudeaketa aurrera eraman:
 - o Sarrera-irteeren kontrola
 - o Abonatuena altak, bajak, aldaketak...
 - o Jardueren izen-emateak, alta-bajak, aldaketak
 - o Jardueretako itzarote-zerrendak, "overbooking" a
 - o Igeriketa mailak eta zerrendak kudeatu.
 - o Alokairuen kudeaketa
 - o Erreziboak sortu
 - o Herritarrei informazioa eman aurrez aurre, telefonoz edo email bitartez:
 - + abonuei buruz
 - + ikastaroak
 - + erreserbak
 - + arautegia
 - + izapideak: eskaerak, kexak.....
 - o Kiroldagiko eguneroko kudeaketa lagundu (piztu, amaitu, objektu galduen kontrola, iragarki-taula mantendu...)
 - o Leihatilan arreta-zerbitzua prestatu eta eman (zalantzak argitu...) eta zerbitzuaren inguruko informazioa eman aurrez aurre zein telefonoz.
 - Datu bildumetan, txostenak eta abar atera ahal izateko datuak sartu.
 - Ordenantza fiskalen onarpenarekin batera, tasa berriak sartu.
 - Auditoria ekonomikorako, zuzendaritzak eskatutako gainbegiraketa egin.
 - Zigor espedienteak abiarazi eta zuzendaritzara bideratu.
 - Hobetze-inkesten datuak sartu.
 - Erabiltzaileei iradokizunak idatziz egitea eskatu edo idatzia betetzen lagundu.
 - Erabiltzaileen portaera zaindu eta beharrezkoa denean arreta deitu arautegiak dioena betetzeko.
 - Edozein gertakari edo eskaintza berrien gainean, horiek erabiltzaileei jakinarazi web-orrian, sare sozialetan, iragarki taulan edota sms/email bidez.
 - Ebakuazio/Larrialdi egoeretan dagozkion ardurak hartu.
 - Egin eguneroko salmentak eta horien kutxa-kontaketa eta itxiera: txapelak, sarrerak eta txartel galduak.
-
- Bere lanpostuaren kategoriarekin bat datozen beste lanpostu batzuk ordezkatzeko edo indartzeko, horretarako beharra dagoenean, bere arduradunen jarraibideei jarraituz.

3.- HAUTAGAI IZATEKO BALDINTZAK

Deialdi honen helburuari jarraituz, kontratatua izateko eta, beraz, hautaketa-frogetan parte hartzeko, honako baldintza hauek ezinbestekoak dira:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu kideren bateko herritarra izatea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera langileen zirkulazio askea aplikatu behar zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Era berean, espainiarren eta Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako bateko nazionalen ezkontideak ere parte hartu ahal izango du, nazionalitatea edozein dela ere, eta kasuan kasuko itunak hala aurreikusten duenean, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatu behar zaion estatuetako nazionalen ezkontideak, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude. Era berean, baldintza berberekin, haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek parte hartu ahal izango dute, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak badira eta haien kontura bizi badira.

b) Hamasei (16) urteak beteak izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen honako titulu akademikoa izatea: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa I edo hortik gorako titulazioa

Azterrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria duela egiaztatu beharko da. Baldintza hori ez zaie aplikatuko Europar Batasuneko Zuzenbideko xedapenen babesean araututako lanbideen esparruan lanbide-kualifikazioaren aitortpena lortu duten izangaiei.

d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar den bezala betetzeko gaitasun funtzionala izatea, zeina egiaztatuko baitute udalak kontratatutako zerbitzu medikoek eragin horretarako deitutakoan eta egingo zaien proben bidez. Hori dena, errege dekretu hau aplikatzearen kalterik gabe: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena.

e) Diziplina-espeditente batez edozein herri administrazio edo autonomia erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako gaitasun-gabetzea erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-legepekoen kasuan, bereziak edo desgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko.

Beste estatu bateko nazionala izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina zehapenik edo baliokiderik ere, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

f) Funtzio publikorako eragotziko dion bestelako ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez izatea, dagozkien legezko xedapenek ezarritako baldintzetan.

g) Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-eskubideengatiko tasa ordaindu izana.

Azterketa egiteko tasa (11.90 euro) ordaintzeari dagokionez, transferentzia bidez edo izena emateko aplikazioak emandako bideari jarraituz egingo da, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.



Transferentzia egiterakoan derrigorrez adierazi beharko dira espediente-zenbakia eta deialdian parte hartuko duenaren NAN zenbakia; eta kontu korronte honetan egin beharko da:

KUTXABANK ES94 2095 5070 79 1061075569

h) C1C1 (3) Hizkuntza Eskakizuna derrigorrezkoa.

Izangaiek, deialdian onartuak izateko, beteta eduki behar dituzte baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, bai eta kontratua egiterakoan ere.

Hala ere, prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangaietako batek ez dituela betetzen deialdiak eskatzen dituen betekizunak edo baldintzak, deialditik kanpo geratuko litzateke, interesdunari entzun eta gero, eta hautaketa-prozesua deitu duen agintaritzari egun horretan bertan emango zaio horren berri.

4.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

Eskaintza 2026ko uztailaren 8a arte egongo da irekia. Epe horretan aurkeztu ahal izango dira eskaerak, LANBIDE zerbitzu publikora edo udalera bideratu beharko direlarik.

Edozein kasutan, 2026ko uztailaren 1etik uztailaren 8ra bitartean eskabide-eredu ofizial eta normalizatua Bergarako Udalaren web-gunean (www.bergara.eus) "Udal lan eskaintza" ataletik modu elektronikoa bete eta aurkeztu beharko da.

Onartua izateko, eskabideak Bergarako Udaleko alkate presidenteari zuzenduko zaizkio, eta errefusatuak ez izateko hautagaiak adierazi beharko dute deialdiko 3. oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta, eta ezinbestekoa izango da sinatuta aurkeztea (Horrek guztiak ez du baldintzatuko gero euskarako jakite-mailaren egiaztapenez esango dena).

Prozesua zuzen egin bada, aplikazioan adierazi den helbide elektronikoa horren frogagiria eta aurkeztutako eskabidea jasoko da.

Eskabidean adierazi beharko dira baloratu nahi diren merezimendu guztiak. Eskabideekin batera EZ da dokumentaziorik aurkeztu behar, merezimendu fasearen aurretik emango da horretarako epea, baina soilik adieraziak edo alegatuak izan diren merezimenduak egiaztatu ahal izango dira.

Halaber, epe honetan (eskabide-eredu ofizial eta normalizatua aurkezteko emango den epean), deialdian parte hartzeko dagozkion tasak ordaindu beharko dira.

5.- HAUTAGAIEN ONARPENA

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Korporazioko alkate-lehendakariak hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, zeinetan adieraziko baititu, kasua hala bada, baztertzearen kausak.

Zerrenda Bergarako Udalaren iragarpenen taulan eta Udalaren web-gunean (www.bergara.eus) **argitaratuko da uztailaren 9an**.

Behin-behineko zerrenda honen aurka erreklamazioak aurkezteko eta baztertua gertatzea kausatu duten errakuntzak edo omisioak **bi eguneko** epea emango da –zerrenda hori Bergarako udaleko web-orrian argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita–.

Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikoa bihurtuko da baldin eta inork erreklamaziorik aurkezten ez badu.

Halakorik izanez gero, ordea, beste ebazpen batean onartuko edo errefusatuko dira, eta haren bidez onetsiko da hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta udalaren iragarki-taulan eta Bergarako Udaleko web-orrian argitaratuko da.

Behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpen horren kontra, errekurtsio kontentzioso-administratiboa jarri ahalko da Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epearen barruan –onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda Bergarako udaleko web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita–. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsio aurkez dezan. Aldez aurretik eta nahi izanez gero, berraztertzeke errekurtsioa jarri ahalko da, hilabeteko epean.

6.- HAUTAGAIEN AUKERAKETA

Baldintza guzti horiek betetzen dituztenen artean **aukeraketa** egingo da, froga honen bitartez.

Ariketa psikoteknikoa: Lanpostuaren profilari egokitzeari buruzkoa. Derrigorrezkoa eta baztertzaila hautagai guztientzat.

Hautagaiak lanpostuaren profil profesioerakoari eta bete beharreko funtzioetara nola egokitzen diren ebaluatzerako bideraturiko gaitasun eta nortasunari buruzko zenbait proba psikotekniko edo/eta elkarrizketa egingo dira.

Ariketa hau egiteko, alkateak dekretu bidez adituak direnak izendatuko ditu, eta horrela jakinaraziko dio epaimahaiari.

Halaber, adituak/adituek epaimahaiari jakinaraziko dizkiote ariketaren inguruko informazioa eta ariketaren garapenean izandako gorabehera guztiak; adituaren/adituen proposamenak lotesleak izango dira.

Ariketa honi **hogeita hamar (30) puntu** emango zaizkio guztira, eta ariketa gainditzeko eta prozesuarekin jarraitzeko, gutxienez ariketa honen puntuazioaren % 50a eta egingo diren ariketa bakoitzaren %40a lortu beharko da.

Ariketa hau **uztailaren 13ko astean** egingo da.

Halaber, **Merezimenduen fasea (lehiaketa) ere izango du.**

Azterketen fasea gainditzen duten hautagaiak merezimenduen fasera igaroko dira.

Ez dira kontuan izango eskabide-orri normalizatuan alegatu edo adierazi ez diren merezimenduak ezta epaimahaiak emandako epean eta moduan egiaztatu ez direnak ere. Epe hori argitara emango da web-orrian.

Agiri hauek **modu elektronikoan** aurkeztuko dira, Bergarako Udalaren “Udal lan eskaintza” ataletik edo BAZean modu presentzian udal erregistroan aurkeztuko dira

A- Esperientzia profesionala:

Epaimahai Kalifikatzaileak hurrengo merezimendu hauek ebaluatuko ditu baldin eta oinarri hauetan jasotakoari jarraituz eskabidean adieraziak eta akreditatuak izan badira, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziazat hartuz:

- **Udal batean administrari edo administrari laguntzaile lanetan** egindako lana betiere beste inoren kontura izan denean: Gehienez ere **10 puntu arte**, eguneko 0,0033 puntu (%100eko jardunean denean edo zati proportzionalan).



B- Formazio osagarria:

B1.- Ikastaroak.

Gutxienez, 5 orduko iraupena izan beharko dute kontuan hartzeko eta ikastaroaren orduko 0,16 puntu emango zaio eta **gehienez ere 5 puntura arte.**

Agirietan bakoitzaren gaitegia edo edukia zehaztuta eta formazio-ekintzen iraupena ordutan jasota izan beharko dute baloratuak izateko.

Ikastaro bat eskaera orrian alegatu edo aipatu bada baina agiriak aurkezteko emandako epean aurkeztu diren agirietan ikastaro horren informazioa jaso ez bada, ikastaro hori ez da kontuan izango.

Halaber, sor daitezkeen zalantzak edo aurreikusita ez dauden kontuak ebazteko ahalmena epaimahaiaren esku egongo da.

Baloratuko direnak izango dira:

- Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko formazioa izatea, lanpostuaren eginkizunen arloko arriskuekin zerikusia izango balu eta, beti ere, enpresa homologatuek emandakoak izan balira.

Atal honetan gehienez ere **4 puntu arte emango dira eta 2020 urtetik aurrera egindakoak** izango dira baloratuko direnak.

- Lanpostuaren eginkizun zehatzekin zerikusia duten beste formazio osagarria espezifikoa (Herritarrei arreta ematea, administrazio prozeduraren legea, Gatazkak kudeatzea eta antzeko ikastaroak).

Atal honetan gehienez ere **5 puntu arte** emango dira.

B2.- Titulazioak:

Gehienez 5 puntu

Deitutako plazaren egitekoan lagungarri den prestakuntza akademikoa izateagatik, betiere titulazioak deitutako plazari lotutako lanpostuaren eduki funtzionalarekin bat etorriz gero:

1.- Lanbide heziketako erdi mailako edo goi mailako titulua izatea honako alorretan: Administrazio-kudeaketako teknikaria, Administrazio eta Finantzetako goi-mailako teknikaria Zuzendaritzari Laguntzeko Goi Mailako teknikaria, Administrazioari Laguntzailea Administrazio- eta administrazio-kudeaketa alorrean.... (betiere eskatutako derrigorrezkoa den titulaziotik aparteko edo gehigarria denean):

- 1.- Erdi mailako titulua edo LH1 izatea: 3 puntu
- 2.- Teknikari titulua edo goi mailakoa izatea: 5 puntu

Egindako zerbitzuen **akreditaziorako:**

- Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak zerbitzuok bete diren administrazioko organo eskumendunak emandako **agiriaren bidez** akreditatuko dira, eta ziurtagiri/egiaztagiri horietan zehaztuko dira enplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren portzentaia eta betetako lanpostuari dagokion titulazio taldea.

Halaber, eta lan-esperientzia baloratzeari begira, izangaia ondoren adierazita datozen egoeretan egon bada, eskaera-orrian adierazi beharko du zenbat denbora egon den egoera horretan, zinpeko aitortpenaren balioa izango duelarik:

- Senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik eszedentzia(k)
- Amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimen egoera(k).
- Genero-indarkeriagatik baimena(k)

Egoera hauetan egon izan den denbora zerbitzu aktiboan egon izan dela ulertuko da.

7.- Merezimendu fasearen jardunbidea

Epaimahai Kalifikatzaileak merezimenduen fasera igaro diren hautagaiek alegatutako eta egiaztatutako merezimenduen balorazioa egin ondoren, Bergarako Udalaren iragarpenen taulan eta udalaren web-gunean (www.bergara.eus) argitaratuko du behin behineko balorazioa.

Balorazioak argitaratu eta gero, **3 egun balioduneko** epea izango da emaitzen aurka erreklamazioak aurkezteko edo dokumentazioa aurkezteko epean aurkeztutako dokumentazioa ZUZENDU edo jasotzen duten informazioa OSATU ahal izateko (ezingo da dokumentazioa aurkezteko epean aurkeztu ez den bestelako dokumenturik aurkeztu). Epaimahaiburuari bidali behar zaizkio erreklamazioak, idatziz, edota dokumentazioa, Bergarako Udaleko Erregistro Elektronikoro Orokorrean aurkeztuta.

8.- Epaimahai Kalifikatzailea

Hautaketa-probetan, Epaimahai Kalifikatzailea ondoren aipatzen direnek osatuko dute:

Lehendakaria: Kirol zerbitzuko burua

Bokalak:

- Agorrosin eta kiroletako koordinatzailea.
- Agorrosingo bulegoko administrari-atezaina.
- Pertsonaleko administraria.
- Enpresa Komiteko ordezkari bat

Idazkaria: Kirol zikloen koordinatzailea, hitz eta bozka eskubideekin .

Beharrezkotzat jotzen dituen probetarako, Epaimahaiak aholkulariak izendatu ahal izango ditu.

Parte hartu ahal izango dute Antolakuntza Batzordeko kide diren zinegotziek, baina horiek ez dute bozketa-eskubiderik izango.

9.- . Epaimahai kalifikatzailearen proposamena

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa ateratzeko, azterketen fasean (oposizioan) eta merezimenduen fasean (lehiaketan) lortu dituen puntuak batuko dira, eta batura horrek zehaztuko du hautagaien lehentasunezko hurrenkera.

Berdinketa egongo balitz, honela erabakiko da, eta hurrenkera honetan:

- a) Proba psikoteknikoan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- b) Esperientzia gehien duena.
- c) Aurreko denetan berdinketa balego zozketa bidez egingo da.

Ariketen kalifikazioa eta merezimenduen ebaluazioa bukatutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udalaren iragarpenen taulan eta Udalaren web-gunean (www.bergara.eus) emango ditu argitara oposizio-lehiaketa gainditu duten hautagaien izenak, lortu dituzten puntuak arabera gehienekotik gutxienekora ordenatuak, eta puntu gehien lortu dituen izendatzeko proposamena egingo du.

Hala ere, Epaimahai Kalifikatzailearen iritziz, deialdira aurkezturiko hautagaien artean ez bada lanpostuan jarduteko gutxieneko baldintzak betetzen dituenik, deialdia hutsik aitortzea erabaki ahalko du.

Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko dio akta, proposamena onartu eta behar den izendapena egin dezan.

Lan-poltsarako proposatuak izan diren izangaiei, jakitera emango zaien epean, hauta-prozesuan parte hartzeko oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztea eskatu ahalko zaie, betiere ofizioz egiaztatu ezin izan badira.

Baldin eta esandako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, hautagai proposatuak agiriak aurkeztu ez baditu edo deialdian eskaturiko baldintzak betetzen dituenik egiaztatu ez badu, ezingo da lan-poltsan egon, haren jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira eta prozesutik kanporatzea erabakiko du alkateak.

10.- Lan-poltsak. Kontratazioa-Praktikaldia

Prozesuko lehen ariketa gainditu duten hautagaiekin, administrari laguntzaile-atezainen lan-poltsa osatuko da.

Alkate-udalburuak dagokien hurrenkeran deituko ditu, eta eskainitako lan-kontratuari uko egiten diona zerrenda horretako azken tokian jarriko da, edozein dela emandako arrazoia.

Lan-poltsaren funtzionamendurako, udalak 2006ko apirilaren 4an Alkatearen Dekretuz onartua duen lan-poltsen erabilerarako barne araudiari jarraituko zaio edo hori ordezkatzeko onartzen den araudiari.

Izangai bakoitzari bi hilabeteko frogaldia egingo zaio lanpostu baterako deitzean.

Frogaldiak edo praktikaldiak hautaketa-prozesuaren atal baten izaera izango du, horren azken balorazioa gai/ez-gai izango da, eta WEB orrian argitaratuko da.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion arduradunak langileak egindako lanari buruzko txostena egingo du, eta erakutsi dituen gaitasunak hartuko ditu kontuan txosten horretan:

- Lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.
- Lantaldera moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Behin-behineko ezgaitasun-egoeragatik, amatasunagatik, aitatasunagatik eta adopzio edo harreragatik lizentzia hartzeak frogaldiaren etenaldia suposatuko du, eta lanera bueltatzerakoan falta den frogaldiari dagokion epea berriz hasiko da zenbatzen.

Halere, eta kontratua hasi aurretik (edo frogaldia bukatu aurretik presazko kontratazioa izan denean) Bergarako Udalak kontratatutako mediku-zerbitzuak *bere osasun egoera lanpostu ezberdinen eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatzeko* behar diren osasun azterketak eta frogak egingo dizkio, eta izangaia horiek egiteari uko egingo balio edo gai ez dela emango balu kontratua bertan behera laga eta lan horri dagokion lan-poltsatik kanpo utziko du udalak.



11. Prozesuaren argitalpenak

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizio aldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko iragarki taulan eta web-orrian ere argitaratuko dira (www.bergara.eus).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangaik edo parte-hartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako, eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

12. Intzidentziak.

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta oposizio-lehiaketaren ordena eta buruzpide onerako behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren guztietan.

13. Datu pertsonalen babesa

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Araudiak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainontzeko araudiak ezarritakoa betez, izangaien izaera pertsonaleko datuak tratamendu-jarduera baten baitan kokatzen dira. Tratamendu horren helburua da langileak hautatzeko prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egitea, baita hautaketa prozesutik sortuko den lan-poltsa kudeatzea ere.

Begarako Udala, datu tratamenduaren arduradun gisa, datu pertsonalak tratatzeko legitimatuta dago interes publikoaren izenean egindako misio bat betetzeagatik tratatzen direlako datuak, lege betebeharrak baten baitan tratatzen direlako, eta baita, datuak beharrezkoak direlako interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko tratamendua beharrezkoa delako. Bergarako Udalak, lan-poltsako parte izango diren izangaien datu pertsonalak beste Herri Administrazio batzuei emango dizkie, betiere deialdi honen bidez eskuratu nahi den lanpostuaren antzekoetan sor dakizkiekeen aldi baterako langileen kontratazio premiei erantzuteko, baldin eta izangaiak berriaz kontraktorik adierazten ez badu. Datu lagapen horren helburu bakar eta eksklusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak egin ahal izatea, legez aurreikusitako baldintzetan.

Datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, tratamenduaren aurka egin zein horien mugatzea eskatzeko eskubidea egikaritu ahal izango da tratamenduaren arduradunaren aurrean, ondorengo helbidera zuzenduta: San Martin Agirre plaza, 1, 20570, Bergara (Begarako Udala).

Halaber, eskubideak errespetatu ez badira edo eskaerari erantzun zuzena eman ez bazaio, hautagaiak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan (<https://www.avpd.euskadi.eus>). Tratamenduari buruzko informazio osagarria eskuragarri dago Bergarako Udalaren webguneko Pribatutasun Politika atalean eta Datuen Tratamendu Jardueren Erregistroan (www.bergara.eus/RAT). Tratamenduaren kodea honakoa da: 0602.



14.- Inpugnazioak.

Honako deialdi hau, beronen oinarriak eta honetatik nahiz Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetatik etor daitezkeen egintza administratibo guztiak inpugnatu ahal izango dira, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako epeetan eta forman.

AYUNTAMIENTO DE BERGARA
BASES DE LA CONVOCATORIA PARA LA CONTRATACIÓN TEMPORAL DE
AUXILIARES ADMINISTRATIVOS/CONSERJES DE AGORROSIN
PROCEDIMIENTO DE URGENCIA

1.- OBJETO DE LAS BASES

Constituye objeto de la presente convocatoria, con carácter de urgencia, **CONFORMAR UNA BOLSA DE TRABAJO PARA LA CONTRATACIÓN DE PERSONAL TEMPORAL DE AUXILIAR ADMINISTRATIVO CONSERJE PARA AGORROSIN**, con aquellas personas inscritas en **LANBIDE** o bien que puedan estar interesadas.

Al puesto de trabajo de la presente convocatoria le corresponden las siguientes retribuciones:

- Complemento de destino correspondiente al nivel 16 y complemento específico de 16.642,80 euros.

Tiene asignado el perfil lingüístico C1C1 (3) preceptivo, con fecha de preceptividad cumplida.

La bolsa de trabajo tendrá una vigencia de un año, a partir de su creación.

El trabajo se realiza en jornada partida o bien en turnos de mañana o tarde, incluyendo normalmente festivos y fines de semana, teniendo en cuenta la naturaleza y necesidades específicas del puesto de trabajo. Asimismo, el trabajo se realiza en horario predeterminado u ocasionalmente variable, y en base al calendario predeterminado u ocasionalmente variable, con disponibilidad de cara a las necesidades de portería (con las horas sobrantes considerando la actividad anual).

La vigencia de la bolsa de trabajo prevista podrá prorrogarse siempre que antes no se generen bolsas de trabajo específicas a partir de convocatorias para la provisión de los puestos,

en cuyo caso, una vez transcurrido el año inicial, estas últimas serán las prioritarias para las necesidades de contratación correspondientes.

Asimismo, si se supera el proceso y se cumplen los requisitos para atender las necesidades de contratación temporal que pueda tener el Ayuntamiento, estas personas podrán ser convocadas para atender necesidades de contratación temporal que puedan existir en el Ayuntamiento (para puestos de los grupos C1, C2 y E: administrativos, conserjes, auxiliares administrativos... o grupos de titulación inferior), siempre que no existieran bolsas de trabajo propias del puesto. Cada contrato que se formalice para cada nuevo puesto tendrá su correspondiente periodo de prueba.

2.- FUNCIONES DEL PUESTO

Las funciones del puesto de trabajo objeto de esta convocatoria son, entre otras, las siguientes:

Las funciones del puesto de trabajo de auxiliar de oficina-conserje de Agorrosin son, entre otras, las siguientes:

- Labores de portería en las instalaciones deportivas de Agorrosin; entre otras:
 - Apertura y cierre de puertas

- Encendido y apagado de la alarma
- Encendido y apagado de luces
- Control de las llaves
- Vigilar el comportamiento de las personas usuarias y adoptar las medidas necesarias
- Control y mantenimiento del tablón de anuncios
- Llevar adelante la gestión de los abonos y de las personas usuarias:
 - o Control de entradas y salidas
 - o Personas abonadas: altas, bajas, modificaciones...
 - o Actividades: inscripciones, altas y bajas, modificaciones
 - o Listas de espera de actividades, "overbooking"
 - o Gestión de los niveles y listas de natación
 - o Gestión de alquileres
 - o Emisión de recibos
 - o Informar al público presencialmente, por teléfono o por e-mail:
 - + sobre abonos
 - + cursos
 - + reservas
 - + normativa
 - + trámites: solicitudes, quejas...
 - o Colaborar en la gestión diaria del centro deportivo (encendido, apagado, control de objetos perdidos, mantenimiento del tablón de anuncios...)
